

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1498

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 9koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baitira 2022-2023 ikasturtean ikasleen nazioarte mailako mugikortasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateei, unibertsitate mailako ikastetxeei eta goi-mailako arte eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeei emandako dirulaguntzak.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 15eko Aginduaren bidez onartu ziren 2022-2023- ikasturtean ikasleen nazioarteko mugikortasun-programak dituzten eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateei, unibertsitate mailako ikastetxeei eta, goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeei zuzendutako dirulaguntzen arauak (2022ko azaroaren 23ko EHAA, 224. zk.).

Dirulaguntza publikoak emateko jarraitu beharreko publikotasun-printzipioa betetzeko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua ezarritakoa kontuan hartuta, emateko ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira.

Horretarako, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea honako deialdi honen babesean emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda: 2022-2023 ikasturtean ikasleen nazioarte mailako mugikortasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateei, unibertsitate mailako ikastetxeei eta goi-mailako arte eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeei dirulaguntzak emateko deialdia Dirulaguntza horiek Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariaren 2023ko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez esleitu ziren, eta ebazpen honen eranskinean agerida dirulaguntzen zenbatekoa.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 9a.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria,
MIREN ARTARAZ MIÑÓN.

ERANSKINA

2022-2023 ikasturtean, dirulaguntzak ematen baitzaizkie ikasleen nazioarte mailako mugikor-tasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateei, unibertsitate mailako ikastetxeei eta goi-mailako arte eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeei emandako laguntzak:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	996.250 €
Mondragon Unibertsitatea	575.620 €
Deustuko Unibertsitatea	488.950 €
Tecnun – Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskola	47.270 €
IDarte, Arte eta Diseinu Goi Eskola	13.770 €
GUZTIRA	2.121.860 €